

ERRESISTENTZIA ETA IHESALDIAK



BDS 38ko taldea, Alako Harria, 1941-1942
Laguntza: Aitor Gutierrez familia, piztasuna

Batailoietakoz diziiplina gogorak arauak onartzera bultzatu zituen prisioneroak. Ahulezia fisikoa, gehienek tradizio politiko eskasa, zigorrak zenbat iraungo zuen ez jakitea edota zigor gehiago jasotzeko beldurra, haien artean ez ezik, familia edo beste prisioneroentzat ere, prisioneroen artean etsipena eta obediencia nagusitzeko arrazoiak izan ziren

Hala ere, horrek ez du esan nahi, bai individualki bai taldeka, duintasunari eusteko inongo ahaleginik ez zuten egin. Batzuetan taldekako protestak, lanaren erritmoa moteltzea, kideen kontrako errepresioan parte ez hartzea, elkarri ez salatzea, abesti frankistei umorezko aldatetak egitea, edota prisioneroen kontrako informeak apurtzea izan ziren erresistentzia egiteko modu ezberdinak.

Mugatik gertu zeudela eta, ihesaldiak tentagarri bihurtu ziren egoera honekin bukatzeko, bidea zaila izango zela eta heriotzaren arriskua ere hor zegoela jakinda ere.



Pedro Andrés

(BDS 38, Bilbo)

Besteak muga aldera zihoazenean harrapatu zituzten. Ez dakit nola joan ziren hara, ez baitzegoen nondik pasatu! Eta han bordak edo etxolak gongo dira, ezta? Sua piztu zuten eta berotzen ari zirenean eskoltek topatu, tiro egin eta, akabola!

Testigantzak



Joaquín Lain

(BDS 14, Valencia)

Egozkuen janaria oso txarra zen. Gogoratzen dut behin lapikoak prest zeudela, eta ilaran geundela janaria hartzeko. Eta

adostua zuten uko egingo ziotela, lapikora ailegatu, platerari buelta eman eta ilara utziko zutela, eta hurrengoek berdin, eta inork ez zuen janaria hartu.



Jesús Moreno

(BDS 38, Gernika, Bizkaia)

Nire kideek ez joateko esaten zidaten, arriskua handia zegoela, baino nik kapitainarengana joan eta sarjentu Botan

nak ogitarteoak birsartzen zizkigula esan nion, eta horri esker hura bukatu zen.



Isaac Arenal

(BDS (P) 95, Madril, Arco de Jaleón - Során, egindako lanari buruz ari da)

Ezkutupean erresistentzia pasiboa egiten hasi ginen (...) Trenbidean "zuloa irekitzeko" barrenak bota eta

gero, soinkarien banda ailegatzen zen; orduan, guk bagonetan lau hari jartzen genituen perpendikularki eta beste bat bagonetatik ateratzen zuelarik, horrela bagoneta "beterik" genuen. Zabortegira heltzen ginenean, goikoa bota eta besteekin bueltatzen ginen, nahiz askotan guztiak bota behar genituen. Horrela -betiere RENFERen kalkuluen arabera- lanaren %25a baino ez zen aurreratzen.

Iturria: I. Arenal, 95 Batallón de Soldados Trabajadores, 1999, Edizio propioa.



Ihesaldiari buruzko informazioa
Iturria: Archivo General Militar de Aita, GDFC.3572, CP.169, L.I.C.M. 18, de Oteiza

ESKLABOTZA FRANKISMOAN: ERREPIDEAK ETA FORTIFIKAZIOAK MENDEBALDEKO PIRINIOAN

2. Egur asko, ogi gutxi!

